Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Konsuelo Ellakuria Azkueta

Zeberio, Bizkaia



Aurkibidea

Biografia



Zintak

ZEB-013

- **Proiektua**: IRALEren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirresarobe, Kolesti - Arangoa, Amparo - Garcia, Pilar - Navaridas, Nekane
- **Data**: 1989-10-10
- **Iraupena**: 52 min
- **Euskarria**: VHS Standard
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Umezain eta gazta saltzen

- **Erref**: ZEB-013/002
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:00:10. **Bukatu**: 00:02:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bederatzi urte arte eskolan ibili zen eta ondoren hamalau urte bete arte, umezain. Etxeratu eta etxeko lanetan eta gazta saltzen hasi zen. 22 urterekin ezkondu egin zen.

Transkripzioa
- 9 urteraiño abili nintzen eskolan. 9 urtegaz urten eskolati ta joan nintzen umeak zaintzen iten. Umetxugaz egon nintzen 14 urtera arte, eta 14 urte ein [nauenean] etorri nintzen etxera. Gero, ba, etxeko lanean. Euki [ginduzen] aizta bi ta ezkondu zian biek egun beten, ta ya parau nintzen aita-amakaz etxean. Ta gero etxeko lanean egon nintzen [hau be], ba, artzaiñekaz ardiek batzean, gaztaiak eiten. Joaten nintzen gaztaiakaz, horti, mendiri mendi, astoagaz gaztai saltzen Arrigorriagaraiño. Arrigorriagati etorri astoan ganean ta gero, ba, atzera etxeko lanean. Ta gero, holan egon gintzezan, ba, geure zerera arte... hogeita bi urtera arte. Gero, hogeita bi urtegaz, bueno, ba, ezkondu gintzezan...
- Senarra: Ez da holan hori.
- Zelan ba?
- Senarra: [... denporaldi bet pasau zendun].
- Hori [zan]... hori esan dot. Ta gero...
- Ondoan, ondoan jezarri.
- Gero, ba, hogeita bi urtegaz ezkondu gintzezan gaure etxera.
- Senarra: Umeak zaintzen egon ta gero [plazan] egon [zinttezan] krieda 3 urtean edo.
- Bueno, ba, han be zaintzen eon nintzela ba, zaintzen eon nitzen han be, jagoten.
- Senarra: Tabernera be bai, ta hainbetek eperdien ukutu be bai.
- Bueno... zeuk badakizu hobeto, zeuk konteu orduen! Bueno, ba. Ta gero, ba, ezkondu gintzezan orduen [...] urte bien. Ta gero, gure... nire nebea ezkondu zen honen arrabeagaz, oseake in geiñun kanbioa. Bai. Ta gero, ba, nire nebea, honen arrebea, etorri zen hara ta gu hona etorri gintzezan, hona. Ta gero ba hementxe ba lanean ta...

2. Basoko erromeriak

- **Erref**: ZEB-013/004
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:08:40. **Bukatu**: 00:10:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Denetarik dantza egiten zuten erromerian. Basoko erromeriak izendatzen ditu. Urtean zehar, plazan izaten zuten dantzaldia.

Transkripzioa
- Dantzan ta gero ba etxera, [...].
- Ta dantzan zer zen, fandango, arin-arin edo...?
- Dana: jotea, edo baltsa nahi txotis nahi... danerik. Ta gero hiru ordu laurenean gaubez jun behar hara, etxera, osoa zikindute, lupetza, bide txarrak, ta danerik. Baia gero udean, egoten zian, ba, ya basoko erromeriak etorten zian: Santa Kruz, gero San Antonio, gero, ba, San Juan, gero... zera...
- Senarra: Andra Mari, San Adrian...
- San Adrian, San Inazio... Gorbeira joaten gintzezan oiñez hemeti hasite, juergan.
- Eta hori nola, lagunekaz?
- Lagunekaz, kuadrillan. Soiñulari bet gual ta danok kuadrillan joaten

gintzezan. O sea ke, juerga. Santa Luzira be igual lau ordu edo gehauan hemeti, basorik baso joaten gintzezan.
- Lau ordu? Oiñez?
- Danok. Oiñez. Goxian urtenda [horruzkuen]-ta kuadrillak. Oso ondo. Ta, ba, erromeri danetara. Osea ke... Baia ez oingo moduen, kotxian-ta ez zean be... danok kuadrillan ta danok juergan joaten gintzezan. Ta [...]. Ta bazen jente plazan, ba, erromerie plazan, ez gendun urtetan guk herritik, ez Igorrera ta ez iñora be ez.
- Iñora be ez.
- Iñora be ez.
- Ez Mireballesera, ez...
- Ez, ez. Mireballesera bertako fiestatan, ya orduen bai.
- Igorrera baita ere fiestetan?
- Ez, ez. Iñungora be ez, e. Mireballesera urteten gendun, ostantzean hermentxe, hementxe plazan. [...]
- Senarra: Igorreko fiestatan hemen bertan be erromerie.
- Bai, Igorreko fiestatan, ba, gaure fiestea zan.
- Senarra: Andra Mari.
- Andra Mari.
- Eta musikan zer izaten zen ba, akordeoia edo?
- Bai, akordeoia.
- Senarra: Akordeoia. Ta panderoa.
- Panderoa ta akordeoia. Bai. Ta oso... oso... juergea, juergea [pasetan gendun]. Honek ez.

3. Parrandazalea gaztetan

- **Erref**: ZEB-013/005
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:10:38. **Bukatu**: 00:12:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Senarra eta biak auzokoak ziren, etxeko. Asteburuan baino aste barruan gehiago egoten ziren elkarrekin. Gaztetan oso parrandazalea zen, baita bere gurasoak ere.

Transkripzioa
- Hau ez, e! Hau ez. Hau jantzan ta holan ez. Honek niri etxera orduko han etxon, han entradan
- Isil-isilik han.
- Han entradan etxon ta gero gora.
- Bueno, bueno, baina egie al da asko kostatzen jakola zu hurbiltzea edo...?
- Ez, ez, baia badakizu zer [gertaten] jakun guri? Gu auzoak ixeten gintzezan, ezta? ta bere etxekoakaz ba oseake familiko moduen.
- Amistadea?
- Bai, oseake etxe... ba familiko moduen. Ta gero [hemen] egoten zan lez, aste [egunek izeten] zan gehau domekak baiño.
- Klaro, klaro.
- Aste-egunetan gehau egon domeketan baiño.
- Domekan zu erromerian eta...
- [...] Entrebistau aste-egunetan eiten gintzezan.
- A bai?

- Bai, ba holantxe.
- Baina pikaro izan zen edo ez?
- Hau.. bai, bai ixin de, e! pikarotxu ixin de, bai. Ta [...] be bai e, gaztetan, bai...
- Senarra: Henbran [neu be bai].
- Honbre, holan. Ez ez, pentsau, pentsau eiten dau beronek, baia ez.
- Ez da egie, ezta?
- Ez, holan ez.
- Senarra: Beste bateri be zazpi urtean beste bateaz ibilitte zeugaitti itxi notsen.
- Bueno, bueno... Ez, ez, oso zera. Ni bixi nintzen gero [toke iatan], ezta? baia oso gogoa, gogodune. Ta nire familie be bai, nire aita ta ama zian oso juergistak ta oso umorotsuek, bai, umoretsuek itzelak. Nire etxe zaharrak, oseake han bizi gintzezan, ta iten zan itzelezko juergak, fiestetan, ailegetan zanean, eta egun bi-hiru igual, ta [...] igual hogei edo hogeita lagunek juergan bertan paraute. Ez, zera... oseake itzelezko.. zera... umoretsuak... gara. Bai. Ta, ba, holantxek zen. Ta oin hemen gaz biok bakarrik, hainbeste pasau ta gero bakarrik egoteko.

4. Eskolan maistra gaiztoa

- **Erref**: ZEB-013/006
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:12:46. **Bukatu**: 00:15:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Bere kabuz ikasi du kontuak egiten. Maistra gaiztoa zeukala dio. Kale egin behar izaten zuen askotan eta ezin izaten zien gelakideei jarraitu.

5. "Ala kinkirrinera" jolasa

- **Erref**: ZEB-013/007
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:15:55. **Bukatu**: 00:17:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Amamarekin dantzan ikasi zuten, lagun batek eta biek. "Ala kinkirrinera" jolasa azaltzen du.

6. Bere kuleroak josi zituenekoa

- **Erref**: ZEB-013/010
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:18:53. **Bukatu**: 00:21:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Etxeko txikiena zen eta etxeko lanak egin behar izaten zituen. Bere kuleroak berak egin zituenenekoa kontatzen du.

7. Etxeko zereginen banaketa

- **Erref**: ZEB-013/013
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:29:03. **Bukatu**: 00:30:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Etxeko gorabehera guztiak berak kudeatu izan ditu, baita seme-alaben ardura ere. Auzokoen laguntza izan dute beti.

8. Hiru erditzeak zelakoak izan ziren

- **Erref**: ZEB-013/014
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:30:37. **Bukatu**: 00:33:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Auzoko emakume bat eta ama izan zituen lagun lehenengo erditzean. Bigarrenean praktikantea izan zuen lagun baina infekzioa sortu zitzaion eta oso gaizki egon zen. Hirugarren erditzean berriz ere infekzioa izan zuen.

9. Lotarako kanta

- **Erref**: ZEB-013/015
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:33:25. **Bukatu**: 00:34:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:
Lo-kanta errezitatzen du eta ondoren abesten.

10. "Arre-arre mandako" kanta

- **Erref**: ZEB-013/016
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:34:54. **Bukatu**: 00:35:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:
"Arre-arre mandako" abesten du.

11. "Urte barri, barri" kanta

- **Erref**: ZEB-013/019
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:38:23. **Bukatu**: 00:38:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:
"Urte barri, barri" kantatzen du.

12. San Juan gaueko araoa

- **Erref**: ZEB-013/020
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:38:58. **Bukatu**: 00:39:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
San Juan gaueko araoa esaten du. Soroak bedeinkatzen zituzten suarekin.

13. "Kanporamartxo" eta "etxeramartxo"

- **Erref**: ZEB-013/021
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:39:38. **Bukatu**: 00:41:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Garizuma baino igande bi lehenago, "kanporamartxo" izaten zen eta igande bat lehenago "etxeramartxo". "Kanporamartxo" egitea mendira joan eta txorixoak erretzea izaten zen. "Etxeramartxo" zenean, etxean egiten zen merienda.

14. Etxe-tresnen aurrerapena eta etxeko lanak banatzea

- **Erref**: ZEB-013/023
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:43:58. **Bukatu**: 00:47:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Ura iturritik ekartzen zuten. Etxe-tresnek emakumeentzat lana erraztu dutela dio. Etxeko lanak gizonekin partekatzearen aldekoa da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com